

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2015eko MAIATZAREN 21ean
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Alava
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita bateko hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta osoko bilkurara ongi etorria eman die guztiei.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

1.- Onestea, hala badagokio, 2015eko apirilaren 23ko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, korporazioan sartzen diren zinegotzi berriek aurkeztu beharreko Ondasunen, Bateriaezintasunen eta Jardueren aitorten-eredua.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Ondare-ondasunen, sozietateetako partaidetzaren eta zerga-informazioaren aitortenaren zirriborroa; bai eta bateraezintasunen eta jardueren aitortenaren zirriborroa ere.

IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa Informazio Batzordearen 2015eko maiatzaren 12ko aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Ondare-ondasunen, sozietateetako partaidetzaren eta zerga-informazioaren eta bateraezintasunen eta jardueren aitortenaren eredua, legegintzaldi berrian hautatutako zinegotzietan bete beharrekoa.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirraborroa, Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2015).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirraborroa, Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2015).

IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea Informazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 12an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren zirraborroa, Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta funtzionamendua mantentzeko (2015). Zentroak aldi berean erabiltzeko hamar plaza ditu guztira.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2015).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Arespaldizako Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2015).

IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea Informazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 12an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Arespaldizako Landa-eremuko Eguneko Arreta Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2015).

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Alday Ongintzako Fundazioari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.”

5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Elkartearen arteko eginiko lankidetz hitzarmena (2015 ekitaldia).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udalak interesa du euskararen ezagutza eta erabilera udal arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Hogeitalau Euskara Elkartek izena eman du Aiara udalerriko elkarten erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea du helburu.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen lankidetz hitzarmena (2015 ekitaldia).

IKUSI DA.- Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 12an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak Hogeitalau Euskara Elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetz hitzarmena (2015 ekitaldia), Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Laugarrena.- Hitzarmena sinatu ondoren, Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea eta horren bi ale helaraztea, sina ditzan eta geroago Udalari ale horietako bat itzul diezaion.

6.- Onestea, bidezkoa bada, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren bosgarren ziurtagiria, 2015eko apirilekoa. Guztira 41.765,52 € dira (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako 5. ziurtagiria eta faktura, 41.765,32 eurokoa (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako 5. ziurtagiria. Guztira 41.765 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 41.765,32 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

7.- Berrestea 2015eko apirilaren 24ko 155/15 Dekretua, 65/15 zenbakiko administrazioarekiko auzi-helegitean demandatu gisa aurkezteari dagokiona. 569/14 Alkatetza Dekretuaren aurkako helegitea da.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 155/15 Alkatetza Dekretua, 2015eko apirilaren 24koa, 65/15 zenbakiko administrazioarekiko auzi-helegitean demandatu gisa aurkezteari buruzkoa. Helegitea Tramame, SAk aurkeztu du obrarako lizentzia-eskaera ezesten duen 569/14 Alkatetza Dekretuaren aurka.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

LEHENENGOA.- Berrestea 155/15 Alkatetza Dekretua, 2015eko apirilaren 24koa, 65/15 zenbakiko administrazioarekiko auzi-helegitean demandatu gisa aurkezteari buruzkoa. Helegitea Tramame, SAk aurkeztu du obrarako lizentzia-eskaera ezesten duen 569/14 Alkatetza Dekretuaren aurka.

Eguneko Aztergaien Zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate-udalburuak Eguneko Aztergaien Zerrendan ez dagoen puntu bat gehitzea proposatu du, premiari buruz bozkatu ondoren. Zehazki, Udalbatza Osoari Kontu-hartzaitzaren txosten baten berri eman nahi zaio, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari eta Diruzaintzako soberakina erabiltzeari dagokionez, fotokopia-makina bat erosteko partida bat gaitzeko.

Lehenengo eta behin premia bozkatu behar da, puntu hau Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo sartzeko. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz, honako hau da puntua:

8.- Udalbatza Osoari Kontu-hartzaitzaren txostenaren berri ematea, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari eta Diruzaintzako soberakina erabiltzeari dagokionez.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2014ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea, ezin delako 2016ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Idazkari eta kontu-hartzaileak 2015eko maiatzaren 21ean eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna betetzeari buruzkoa, Diruzaintzako soberakinarekin gastuak finantzatzeko, gastu orokorrak direla eta.

AINTZAT HARTU DA.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 eta 7.3 artikuluekin bat etorritik (17/2014 Foru Arauaren erredakzioari jarraikiz), Udalbatza Osoak badu Kontu-hartzaitzaren txostenaren berri, Aurrekontu Egonkortasuna betetzen ez dela eta, Diruzaintzako soberakina erabiltzeari dagokionez. Txostena 2015eko maiatzaren 21ean idatzi zen.

Eguneko Aztergaien Zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate-udalburuak Eguneko Aztergaien Zerrendan ez dagoen puntu bat gehitzea proposatu du, premiari buruz bozkatu ondoren. Zehazki, udalbatzak Etxaurren Ikastolako psikologoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen lana babestu nahi du.

Lehenengo eta behin premia bozkatu behar da, puntu hori Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo sartzeko. udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Ondorioz, honako hau da puntua:

9.- Udalbatzak babesa ematea Etxaurren Ikastolako psikologoak eta bi urtekoen gelako laguntzaileak egiten duten lanari.

Josu jaunak (Bildu) honako babes-gutun hauek irakurri ditu:

“EIGEren (Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarte) akordio-proposamena:

*Azpialdean sinatzen dugunok, Udalbatza osatzen duten alderdi politikoen ordezkari diren aldetik, osoko akordio honen bidez **erabateko babesa** ematen diete **gure ikastegi Etxaurren Ikastolako psikologoak ematen duen zerbitzuari**: haren garrantziak eta ibilbide luzeak bermatzen dute.*

Gure ikastegiko psikologia-zerbitzua familien eta hainbat korporazioen ahaleginaren eta inplikazioaren ondorio da, eta etenik gabe eman da hamarkadarik hamarkada.

Profesional hori kontratatzeaz ikastegiko gurasoen elkarte (Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarte) arduratzen da, eta Udalaren ekarpenarekin finantzatzen da, IGEk eta udal-gobernuak sinatutako hitzarmeneko betekizun eta baldintzekin.

Profesional horri dagozkion zereginak eta lanak ederto mugatuta daude, ikastegiko irakasleei eta irakasle ez direnei dagozkienetatik bereizita, eta oinarrizko zerbitzua osatzen dute, eskola publikoaren eskaintza osatzen eta aberasten duena. Are gehiago, arreta psikologikoa ez da independentea, ezpada tutorearekin koordinatua, eta ikastegiaren dinamika eta printzipioak erabat errespetatuz ematen da.

Azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela psikologoak hainbat egoeratan ematen duen arreta; izan ere, gai batzuk oso sentikorak eta sakonak dira ikasle eta familientzat, eta arreta hori, beraz, laguntza-euskarri handia eta publikoa da hezkuntza-erkidegoarentzat.

*Zerbitzu horrek eredu bihurtzen du gure ikastegia, Aiara osatzen duten 24 herrietako familien laguntza-kalitateari dagokionez. Hori dela eta, **Udalbatza honek erabateko babesa eta defentsa eman nahi dio gure eskola publikoarentzat funtsezko den zerbitzuari, horrek gure udalerrian ere zeregin berezia duen heinean, aintzat hartuta biztanleria-guneak sakabanatuta eta elkarrekiko urrun daudela.***

Beraz, honen bidez eskatzen dugu profesional hori kanporatzea dakarren edozein erabaki berraztertzeke, haren lanak ikasleentzat, familientzat, irakasleentzat eta Aiarako herritarrentzat dakartzan kalitatea, garrantzia eta sentsibiltatea aintzat hartuta.

Aiara, 2015eko maiatzaren 21ean.”

“EIGEren (Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarte) akordio-proposamena:

*Jakinik Hezkuntza Sailak agin dezakeela bere mendeko ez diren langileak ikasgeletatik kanpo geratzea gure eskolan (zehazki, bi urtekoen gelako laguntzailea), azpian sinatzen dugunok, Udalbatza osatzen duten alderdi politikoaren ordezkari gisa, erakunde horri **erabateko babesa eman nahi diote profesional horrek gure ikastegian ematen duen zerbitzuari**: haren garrantziak eta ibilbide luzeak bermatzen dute.*

Bi urteko gelako laguntzaileak ematen duen zerbitzua familien eta hainbat korporazioaren ahaleginaren eta inplikazioaren ondorio da, eta etenik gabe eman da hamarkadarik hamarkada.

Profesional hori kontratatzeaz ikastegiko gurasoen elkarte (Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarte) arduratzen da, eta Udalaren ekarpenarekin finantzatzen da, IGEk eta udal-gobernuak sinatutako hitzarmeneko betekizun eta baldintzekin.

Profesional horri dagozkion zereginak eta lanak ederto mugatuta daude, ikastegiko irakasleei eta irakasle ez direnei dagozkienetatik bereizita, eta oinarrizko zerbitzua osatzen dute, eskola publikoaren eskaintza osatzen eta aberasten duena.

Denok dugu bi urteko ikasgelako laguntzaile batek ikasle sentiberenekin egiten duen lanaren berri; garrantzitsua da ikasleen egunerokoan, batez ere ikasturtearen hasieran, egokitze-aldian. Izan ere, hain gazte izanik, ez dute autonomia nahikorik berez aritzeko, eta, hala, konfiantzako lotura ezartzen da, eta hori lagungarri da segurtasuna eta begikotasun afektiboa lortzeko; hala, ikasleak seguruago ikusten dute beren burua. Zer esanik ez: familiek oso balorazio ona egin dute ikastegiko langile horren inguruan.

Zerbitzu horrek eredu bihurtzen du gure ikastegia, Aiara osatzen duten 24 herrietako familien laguntza-kalitateari dagokionez. Hori dela eta, korporazio honek ez du inola ere onartzen gure eskolari kalitatea eta berotasuna ematen dion arreta baztertea. Gainera, gure udalerriko gizarte-bizimodua ardatzen duten zerbitzu publikoetako bat da, biztanleria-guneak sakabanatuta daudela aintzat hartuta.

Beraz, honen bidez eskatzen dugu profesional hori kanporatzea dakarren edozein erabaki berraztertzeke, haren lanak ikasleentzat, familientzat, irakasleentzat eta Aiarako herritarrentzat dakartzan kalitatea, garrantzia eta sentsibiltatea aintzat hartuta.

Aiaran, 2015eko maiatzaren 21ean.”

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Beraz, Udalean ordezkariak izan diren alderdi politiko guztiek sinatuko dituzte babes-gutun horiek.

Eguneko Aztergaien Zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu baino lehen, alkate-udalburuak beste puntu bat proposatu du, Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo aztertzeke. Josu jaunak (Bildu) esan du azken asteotan sortutako gai bati buruz eztabaidatu nahi duela. Nahiko delikatu da. Bada, legegintzaldiko ohiko osoko bilkuretan azkena denez, uste du premia duela; izan ere, Udalbatza honi eragiten dio. Zehazki, udal-arkitekto Á. I. jaunaren idazkiari dagokio: alkateari igorri zion, I. S. de L. andreak berarekin izaniko jarrerari dagokio.

Gaia eztabaidatzen jarraitu aurretik, puntua Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo gehitzeko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 4 Bildu

KONTRAKO BOTOAK: 4 (2 EAJ-PNV eta 2 AB)

ABSTENTZIOAK: 1 PP

Beraz, Josu jaunak (Bildu), alkate gisa duen kalitate-botoa erabiliz, gaiaren premia onestea eragin du. Eztabaidatu eta bozkatu egin dute.

10.- Udal-arkitektoaren idazki baten ondorioz sortutako arazoak. Idazkiak zenbait kontu leporatu dizkio Udaleko zinegotzi bati.

Josu jaunak (Bildu) irakurri egin du Á. I.k 2015eko maiatzaren 7an aurkeztutako testu bat, akta honen I. eranskin gisa erantsi dena.

Josu jaunak (Bildu) gai honi dagozkionak aurkeztu ditu. Esan du idazkia maiatzaren 7an aurkeztu zela. Esan du maiatzaren 11n bertan berak deitu ziola I. S. de L. andreari, aurkeztutako idazkiaren berri zuen galdetzeko; ezetz erantzun zionez, egun hartako arratsaldean bertan eman zion. Bi ordu ingururen buruen, Iratxe Parro andrearen deia jaso zuen: Josuri eskatu zion idazkia ez aurkezteko maiatzaren 12rako deitua zen informazio-batzordearen bileran; izan ere, oraindik ere ez zegoela beste pertsona interesdunaren idazkirik, arkitektoak azaldutako iritziak erkatzeke.

Josu jaunak (Bildu) hitz egiten jarraitu eta esan du batzordearen bilkura maiatzaren 12an egin zela, eta gaia aztertu zutela. Bilkura horretan ez zen I. S. de L. (AB) andrea bertaratu, ezpada Iratxe Parro (AB) andrea. Bada, bilkura hori hasi baino lehen, Iratxe andreak idazki bat aurkeztu zuen. Gobernu-taldeak ez zuen idazki horren berririk.

Iratxe andreak (AB) esan zuen berak lehenengo orduan eman ziola sarrera idazkiari, eta udal-funtzionarioari eskatu ziola idazkia alkateari igortzeko albait arinen, premia zuela eta.

Josu jaunak (Bildu) Aiara Batuzek maiatzaren 12an aurkeztutako idazkia irakurri du. Akta honen II. eranskin gisa erantsi da.

Josu jaunak (Bildu) hitz egiten jarraitu eta esan du gaia aztertu zela batzordearen bilkuran, eta zenbait talde ados daudela: gai larria da.

Esmeralda andreak (EAJ/PNV) esan du larritzat jo zutela, baina batzordearen bilkuran esan zutela aztertzeko informazioa falta zutela; izan ere, beste alderdiaren bertsioa falta zen.

Iratxe andreak (AB) esan zuen batzordearen bilkuran bertan eskatu zela gaia ez lantzeko, eta, halere, landu egin zen.

Josu jaunak (Bildu) erantzun dio gaia lantzearen xedea ez zela ezer zabaltzea; izan ere, gainera, badaki beste alderdiaren bertsioa edo erantzuna falta dela, baina ulertu zuen behar bezain larria zela, aztertzeko. Iritzi horrekin bat egin zuten gainerako talde politikoek.

Esmeralda andreak (EAJ/PNV) esan du eurek esan zutela jada beste alderdiaren informazioa falta zela, eta eskatu zuten gaia aztertzeko informazio eta datu guztiak eskura izatean, erabaki bidezkoenak hartzeko, hurrengo hauteskundeen data aintzat hartu gabe.

Iratxe andreak (AB) esan zuen idazkariak esan ziola jada jardunean egongo ginela ekainaren 13ra bitartean; beraz, gaia lasaiago azter zitekeen.

Josu jaunak (Bildu) esan du hau dela legegintzaldiko azken osoko bilkura eta gaia behar bezain larria dela orain aztertzeko.

Iratxe andreak (AB) esan du asmoa bada Udalbatzako kide guztiei egoeraren berri ematea ez zela beharrezkoa osoko bilkura honetan lantzea. Denok dugu kontuaren berri.

Josu jaunak (Bildu) gertatutakoak azaltzen jarraitu du. Esan du Iraida andrearen jakinarazpenen bat falta dela (maiatzaren 13an, goizez, HAPOn inguruko bilera batean egon zen; arratsalde, lehenengo sektoreari buruzko hitzaldi batean). Bada, bi egun igarota bere aldetik informazioa eta argibideak jaso gabe, idazki bat igorri zitzaion, leporatutakoei erantzutea eskatzeko.

Josu jaunak (Bildu) maiatzaren 14ko irteera-data duen idazkia irakurri du. Akta honen III. eranskin gisa erantsi da.

Hitz egiten jarraitu eta esan du maiatzaren 15eko 14:30ean I. S. de L. andreak ondoren irakurri duen idazkia aurkeztu zuela (akta honen IV. eranskin gisa dago jasota).

Idazki horri erantzuteko, esan du Josu jaunak, idazki labur bat igorri zitzaion, eskatutako epe-luzapena emateko.

Josu jaunak (Bildu) esan du bere talde politikoak uste duela leporatutakoak oso larriak direla eta horregatik ekarri direla osoko bilkura honetara. Hitz egiten jarraitu eta esan du, HAPOn jendaurreko fasean daudenez, Iraida andrea behin-behinean baztertu dutela HAPOn koordinazio-lanpostutik. Guztia argitzen denean itzuli ahal izango da.

Iratxe andreak (AB) galdetu du zein ote den gai hau osoko bilkura honetan aztertzearren helburua.

Josu jaunak (Bildu) erantzun du Udalbatza Osoari informazioa ematea dela helburua, osoko bilkuretan ematen delako informazioa.

Iratxe andreak (AB) esan du interesduna erantzuteko eman zaion 10 eguneko epean dagoela. Galdetu du ea zer gertatuko den gai bada frogatzeko idazki horietan esaten dena ez dela egia. Ez da bestelako osoko bilkurarik egingo, hori jasotzeko.

Iratxe andreak (AB) galdetu du gobernu-taldeak hitz egin ote duen HAPO idazten ari den enpresarekin. Enpresako kideak bilkura guztietan daude, eta beren pertzepzioa zein den jakin nahi dute.

Josu jaunak (Bildu) ezetz erantzun du.

Iratxe andreak (AB) hitz egiten jarraitu eta esan du Gerardorekin hitz egin dutela (HAPO idazten ari dena). Bada, berak emandako ondorioak idatziz jarriko ditugu, baina ez datoz bat Á.k bere idazkian adierazi duenarekin.

Lauren jaunak (Bildu) esan du HAPO idazten ari den taldearekin hitz egiteko denbora izan badu alkatearekin ere hitz egin zitekeela.

Iratxe andreak (AB) esan du alkate jaunak Iraida andrearekin hitz egin zezakeela, alderdi horren informazio gehiago izateko.

Iratxe andreak (AB) esan du berak zenbait alditan hitz egin duela arkitektoarekin eta gelditzeko aukera eman zaiola, arazoak konpontzeko. Baina, arkitektoak ezetz esan du.

Josu jaunak (Bildu) esan du informazio guztia dutenean emango direla eman beharreko iritziak. Oraingoan, espedientearen egoerari buruzko informazioa ematen ari dira.

Iratxe andreak (AB) esan du legegintzaldi berrirako Bilduren hauteskunde-programan erronken artean agertzen dela hirigintza-izapideen erantzun-epeak murriztea.

Lauren jaunak (Bildu) esan du baietz, horrekin ados daudela.

Iratxe andreak (AB) esan du Á.rekin hitz egin duela eta hark esan ziola uste zuela Jose Luisek ere barkamena eskatu behar ziola, egoitzaren espedientearen egindako presioagatik.

Iratxe andreak (AB), Á. I. arkitektoak aurkeztutako idazkiari dagokionez... Esaten da *Aiara batuzen* aldizkarian ez dela Saileko beste teknikaria aipatzen. Esaten da ez zekiela zer gertatzen ari zen beste teknikariarekin, harik eta aurreko egunean jakin zuten, informazio-batzordearen bilkuran. Izan ere, gobernu-taldeak ez zien inolako arazoren berririk eman.

Josu jaunak (Bildu) esan du gai hori barnean aztertu dela. Problematika bat ikusi zen eta barnetik bideratzen saiatu dira. Hala egin da.

Besterik gabe, eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntura igaro dira.

11.- Honako hauen berri ematea:

- 2015eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kontaketa-aktak.
- Gastu eta diru-sarreraren balantzea.
- 2015eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko libreten egoera.
- 2015eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kreditu-aldaketak.

Ez da horren inguruan ezer esan eta Udalbatza jakitun geratu da.

12.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 144/15.- Axpo Iberia, SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 1. lauhilekoa).
- **Erref.- 23/15.- Naturgas Energia Comercializadora, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 1. lauhilekoa). Kontzeptua: gasa.
- **Erref.- 23/15.- Naturgas Energia Comercializadora, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 1. lauhilekoa). Kontzeptua: elektrizitatea.
- **Erref.: 147/15.- RN.M.A.-** Baja emateko espedientea, biztanleen udal-eroldaren epea iraungi baita.
- **Erref.- 148/15.- ARL.-** Aldeko txostena ematea eta lizentzia-espedientearekin jarraitzea, obrarako eta jarduera sailkaturako lizentzia ematea, “Haragitarako behien nabea handitzea, bazka biltegitzeko”.
- **Erref.- 149/15.- B., SC.-** Fidantza eskatzea, Kexaan etxolaren teilatua eraberritzeko obrak eragindako hondakinak kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 150/15.-** Zerbitzuetako langileen lan-poltsa sortzea.
- **Erref.- 151/15.-** Administrari laguntzaileen lan-poltsa sortzea.
- **Erref.- 152/15.- B., SC.-** Kexaako etxolaren teilatua eraberritzeko obrarako lizentzia.
- **Erref.- Rfa.-153/15.-** Bitarteko funtzionarioa izendatzea, funtzionarioa ordezkatzeko, gaixotasuna dela eta.
- **Erref.- 154/15.-** Langileak aldi baterako kontratatzea, zerbitzu anitzeko langilearen zereginak egiteko.
- **Erref.- 155/15.-** Bertaratzea Tramame, SAk 569/14 Alkatetza Dekretuaren aurka aurkeztutako errekurso arruntean.
- **Erref.- 156/15.-** Zehazpen-espedientearen jarduera osagarriak. Remai, SA.
- **Erref.- 157/15.-** Hornidura-kontratu txikia, birziklatzeko hiru gune txiki sortzeko.
- **Erref.- 158/15.- Onestea F/2015/4 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 159/15.- L., SC.-** Obrarako lizentzia ematea, kainu bat exekutatzeko Agiñagako bidean.
- **Erref.- 160/15.- L., SC.-** Agiñagako bidea asfaltatzeko obra legeztatzea.
- **Erref.- 161/15.-** Onestea barne-promozioko administrazio laguntzailea hautatzeko prozesuan onartutakoen behin betiko zerrenda.
- **Erref.- 162/15.- SGG.-** Lizentzia ematea, Sojon familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko lanak hasteko.
- **Rfa.- 163/15.- Abere Zerbitzu Teknikoak Koop. S.-** Esleitzea Arraza Pirenaikoko Ganaduaren Arabako I. Lehiaketa antolatzeko zerbitzua.
- **Rfa.- 164/15.- Abere Zerbitzu Teknikoak Koop. S.-** Esleitzea San Isidro Azokan ganadu-erakusketa antolatzeko zerbitzua.
- **Erref.- 165/15.- Olabazarreko Administrazio Batza.-** Ezestea obrarako lizentzia, Murgako poligonoan, Arza errotaren inguruan, eremu berdea hesitzeko.
- **Erref.- 166/15.- MC.UA.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko Udal Zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 167/15.- OCE.-** Ibilgailuen gaineko Udal-zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun maila bat egiaztatzeagatik.
- **Erref.- 168/15.- LM.A.P.-** Ibilgailuen gaineko Udal-zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun maila bat egiaztatzeagatik.
- **Erref.- 169/15.- EEO.-** Obrarako lizentzia ematea, Llantenon fatxada bat konpontzeko.
- **Erref.- 170/15.- Elder Medio Ambiente Vitoria, SLL.-** Aldaketak plastikoak biltzeko kontratuan.

- **Erref.- 171/15.-** Onestea AFari diru-laguntza eskatzea, 2015ean euskarazko jarduerak egiteko.
- **Erref.- 172/15.- RGO.-** Fidantza eskatzea, Izoriako etxola baten teilatua ordeztzeko eta atea jartzeko obrak eragindako hondakinen kudeaketa bermatzeko.
- **Erref.- 173/15.- RGO.-** Obrarako lizentzia ematea, Izoriako etxola baten teilatua ordeztzeko eta atea jartzeko.
- **Erref.- 174/15.- MCSS.-** Obrarako lizentzia ematea, Menagarain teilatua konpontzeko.
- **Erref.- 175/15.-** Onartzea Ur-horniduraren eta Estolderiaren Zerga Erroldak (2015eko 1. hiruhilekoa).
- **Erref.- 176/15.- AIG.-** Dokumentazioa eskatzea, Llantenon teilatua konpontzeko obrarako lizentzia emateko.
- **Erref.- 177/15.- JCMG-** Obrarako hirigintza lizentzia ematea Luiaondon dagoen etxebizitza bateko leihoak aldatzeko.
- **Erref.- 178/15.- JLBG.-** Obrarako lizentzia ematea, Izorian horma bat altxatzeko.
- **Erref.- 179/15.- JLBG.-** Obrarako lizentzia ematea, Izorian lursailak ixteko.
- **Erref.- 180/15.- AIA.-** Obrarako lizentzia ematea, Izorian lursailen itxidurak konpontzeko.
- **Erref.- 181/15.- JJZV.-** Hirigintza-antolamendua berrezartzeko eskaera, Murgako finka batean trenbide-trabesak jarri ondoren.
- **Erref.- 182/15.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 183/15.-** AFaren 2015eko diru-laguntza aldatzea.
- **Erref.- 184/15.- FAO.-** Hirigintza-antolamendua berrezartzeko espedientea, Etxegoien putzuko obrak egin ondoren.
- **Erref.- 185/15.- ISONELL, SA.-** Aldeko txostena ematea eta nabea handitzeari buruzko espedientea igortzea Eusko Jaurlaritzari.

José Luis Pedruzo jaunak (PP) 181/15 Dekretuari buruz galdetu du.
Horren kopia bat emango zaio, ezagut dezan.

10.- Norberak lekarkeena.

Jose Antonio jaunak (EAJ/PNV) esan du aurreko bi bilkuretan bi txosten eskatu dituela. Horietako bat Udaleko Diruzaintzari buruzkoa eta 2011ko ekainekoa da, eta igorri diote jada. Bada, esan du ados dagoela: 2011ko ekainaren 10ean, Udalaren kontuen saldoa 301.970,49 €-koa zen.

Halaber, kiroldegiaren estalkiaren inguruan eskatutako beste txostena igortzeko eskatu zuen.

Idazkariak esan du txosten hori egiteko espediente osoa berrikusi behar duela eta horrek denbora gehiago hartuko diola.

Inork ez du ezer esan gaiari buruz, eta Josu jaunak esan du ohiko osoko bilkura honekin amaitzen dela legegintzaldia. Bertaratutako guztiei eskerrak eman dizkie, bertaratzeagatik. Udalbatzako kideei beren lana eskertu die.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeita bost minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak

jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita batean.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.